

## GERNIKAKO IKASLEAK

Deskribapena: Picassoren Gernika koadroa pintatzen imajinak kamera azkarrean ageri dira.

Kike (off ahotsa): Picassoren Gernika ospetsuaren bertsio asko egin izan dira.

Deskribapena: Gernikako festetako imajinak ageri dira lehenengo eta ondoren, satelitetik edo airetik ateratako Gernika eta munduaren imajinak ikusten dira.

Kike (off ahotsa): Baina Gernika, Picassok egindako margolana baino askoz gehiago da. Bertan, hamazazpi mila pertsona inguru bizi dira eta horietatik ehuneko hamar etorkinak dira; gehienak Errumaniatik etorritakoak.

Deskribapena: Gernikako eskolako ikasleak patiotik eta ikasgelatik agurtzen azaltzen dira eta ondoren ikasleen lanen imajinak.

Kike (off ahotsa): Gernikako etorkinen kopuru handi bat haur eta gazteek osatzen dute eta horregatik udalak AEK-ren laguntzarekin GUGAZte plana martxan jarri zuen, hau da, etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko egitasmoa.

Deskribapena: Pantaila lau zatitan banatzen da, zati bakoitza atzeritar batekin, Georgiana Cocuz (Errumania), Valentina Carbajal (Argentina), Andres Llerena (Ekuador) eta Xuey Yang (Txina):

Kike (off ahotsa): Esango al didazue, zenbat denbora daramazuen Euskal Herrian?

Deskribapena: Pantailak zatituta egoteari uzten dio eta erantzunak bata bestearen ondoren ikusten ditugu.

Georgiana Cocuz: “Nik orain dela zortzi urte etorri nintzen.”

Valentina Carbajal: “Hamaika urte.”

Andres Llerena: “Orain dela hamahiru urte daramat hemen.”

Xuey Yang: “E, Bost urte.”

Deskribapena: Pantaila berriro lau zatitan banatzen da, zati bakoitza atzeritar berdinekin osatuz.

Kike (off ahotsa): Aizue, eta zuek zer harreman duzue euskararekin?

Deskribapena: Pantailak zatituta egoteari uzten dio eta erantzunak bata bestearen ondoren ikusten ditugu.

Georgiana Cocuz: “Egia esan gutxi egiten dut baina egiten dudanean lagunekin egiten dut normalean.”

Valentina Carbajal: “E, kalean lagunekin ba gitxi.”

Andres Llerena: “Eskolatik kanpo nire lagunegaz egiten dut berba eta futbolien.”

Xuey Yang: “Ba, gutxi, baina batzuetan lagunarekin.”

Deskribapena: Pantaila berriro lau zatitan banatzen da, zati bakoitza atzerritar berdinekin osatuz.

Kike (off ahotsa): Eta zuen ustez, euskera ikastea beste hizkuntzak ikastea baino zailagoa ala errazagoa da?

Valentina Carbajal: “E, berdintsua.”

Andres Llerena: “Erreza, ze txikitatik ikasi dut euskeraz eta orduan, niretzako erderaz moduen da ikasteko eta...”

Xuey Yang: “Hasieran zaila da baina apurka apurka erreza.”

Georgiana Cocuz: “Euskera besteekin konparatuta ez da izan zaila.”